AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3511

1092/2013 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Elena Baylin Zaldua andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 1eko 685/2012 Ebazpenaren bidez (uztailaren 11ko EHAA, 135. zk.), Elena Baylin Zaldua andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen lanpostua betetzeko izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Elena Baylin Zaldua andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen postutik kentzea, eta emandako zerbitzuengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko uztailaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuari, Donostia Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.